

EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO  
BERDINTASUNERAKO  
NAFARROAKO PLAN ESTRATEGIKOARI  
**EKARPENAK**



HIZKUNTZ ESKUBIDEEN  
**BEHATOKIA**

## **SARRERA**

Gobernu-plana foru eta toki administrazioaren berdintasunaren arloko jarduketaren plan zuzentzaile eta orientatzailea da.

2022-2027rako berdintasunaren alorreko agenda politiko eta publikoa jasotzen du. Hortaz, hurrengo urteetarako Nafarroako Gobernuko erakunde eta departamentu ezberdinetan aplikatuko diren neurriekiko lerroa ezartzen du. Ondorioz, Nafarroako emakumeei zuzendutako hainbat neurri, zerbitzu eta baliabide jasotzen dira.

Horietan guztietan, Nafarroako emakumeen hizkuntza-eskubideen bermea txertatu beharra ere badago, izan ere, Nafarroako berezko hizkuntza izanik, euskaraz bizi nahi duten emakumeek oztopo bereziak dituzte berdintasunerako estrategikoak izan daitezkeen lerro batzuetan. Horrela, horiek kontuan hartzeak, planteatzen diren neurrien eraginkortasunarekin ez ezik, emakumeen osasun eta segurtasunarekin ere lotura estua dute. Ezin genezake berdintasunean jardun, administrazioak Nafarroako emakumeen arteko desberdinkeria areagotzen duten erabaki eta neurriak zilegiztatzeko baditu.

## **PLANARI EKARPENAK EGITEKO PROZESU DISKRIMINATZAILEA**

Aurkeztutako planaren diseinu-prozesuan hizkuntza-eskubideak behar bezala bermatu ez direla salatu nahiko dugu. Izan ere, berdintasun legearekiko aurretiko diagnostikoa, ekarpenak egiteko dokumentua eta ardatz bakoitzari dagozkion neurri proposamenak gaztelania hutsean publikatu dira (dokumentu batzuek azaleko orria bakarrik dute elebitan, eduki osoa gaztelaniaz dago).

Bestalde, berdintasun legearen aurretiko diagnostikoan euskararen ezagutza eta erabilerari buruzko atalean aipatutakoak ez zaizkigu egokiak eta nahikoak iruditzen atal honetako beharrianak eta oztopoak detektatzeari begira.

Azkenik, erabat deitoragarria da webgunearen euskarazko bertsioaren arabera ekarpenak egiteko epea itxita dagoela agertu, eta gaztelaniazkoa epea luzeagoa dela agertzea. Ulertezina da berdintasuna helburu duen plan baten prestakuntza berdintasunez ez jokatzea Nafarroako emakume guztiei dagokienez, eta Nafarroako emakumeen kolektibo batekin horrela jokatzea.

Horrek, planari berari zilegitasuna kentzen diola uste dugu, Gobernuak ez duelako benetako esfortzua egin herritar guztien parte hartzea baldintza berdinetan izan dadin.


navarra.es x Emakume eta gizonen arteko b... +

← → ↻ https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza/prozesuak/emakume-eta-gizonen-arteko-berdintasunerako-plan-estrategikoa

Hasiera > Quespena > Partaidetza/prozesuak > Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako Plan Estrategikoa

## Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako Plan Estrategikoa

IRISGAPITASUN ALKEREAK



**ERLAZIONATUTAKO EDUKIAK:**

- Lantze prozesuaren garapena
- Nola parte hartu?(Bideo)

Nafarroako emakume eta gizonen arteko berdintasunerako Plan Estrategikoa 17/2019 Berdintasunerako Legea garatzeko plangintza publikorako tresna nagusia da. Nafarroako Foru Komunitatean emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra bultzatzeko zeharkako helburu eta neurriak bilduko ditu.

Planak sei urteko indarraldia du, eta Nafarroako Gobernuaren, toki-erakundeen eta unibertsitateen berdintasun-politika zuzendu eta aholkatuko du. Horrez gain, eragile sozial eta ekonomikoentzat, elkarreztzat eta Nafarroan berdintasunaren eta emakumeen herritartasun-eskubideen alde lan egiten duten taldeentzat erreferentzia izango diren jarraibideak emango ditu.

Parte hartzeko prozesuaren bidez, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako Plan Estrategikoaren helburuak eta ekintzak kontrastatu, kontsultatu eta eztabaidatu dira, interes-talde ezberdinen ikuspegia eta errealitatea jaso ditzan, baita gizarte zibilarrena ere.

**FITXA**

- > **DEPARTAMENTUA:** Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua
- > **ARDURA DUEN UNITATEA:** Nafarroako Berdintasunerako Institutua (NABI)
- > **PROPOSAMEN MOTA:** Plana
- > **PROPOSAMENAREN FASEA:** Egitea
- > **GOBERNU PROPOSAMENAREN EGOERA:** Aktiboa
- > **PARTE-HARTZE PROZESUAREN EGOERA:** Itxita

Nafarroako Gobernua de Navarra

Webaren mapa | Lege abisua | Erabilerraztasuna | Jarraituz gurekin harremanetan | Zure kontua sartu

navarra.es x Plan Estratégico para la igualdad: X +

← → ↻ https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participación/procesos/plan-estrategico-para-igualdad-entre-mujeres-hombres

## Plan Estratégico para la igualdad entre mujeres y hombres

OPCIONES DE ACCESIBILIDAD



**CONTENIDOS RELACIONADOS:**

- Proceso de elaboración
- ¿Cómo participar? (Video)



El Plan Estratégico para la igualdad entre mujeres y hombres en Navarra es la principal herramienta de planificación pública para desarrollar la Ley de Igualdad 17/2019. Recogerá objetivos y medidas de carácter transversal para impulsar la igualdad efectiva entre mujeres y hombres en el ámbito territorial de la Comunidad Foral de Navarra.

Este plan tiene una vigencia de seis años y dirigirá y asesorará la política de igualdad de Gobierno de Navarra, de las Entidades Locales, de las Universidades, aportando además pautas que sirvan de referencia a agentes sociales y económicos, asociaciones y grupos que trabajan en la Comunidad Foral en favor de la igualdad y la defensa de los derechos de ciudadanía de las mujeres.

El proceso de participación permitirá el contraste, consulta y deliberación de los objetivos y acciones del Plan Estratégico para la igualdad entre mujeres y hombres, para que incorpore la visión y realidad de diferentes grupos de interés, también de la sociedad civil.

**FICHA**

- > **DEPARTAMENTO:** Departamento de Presidencia, Igualdad, Función Pública e Interior
- > **UNIDAD RESPONSABLE:** Instituto Navarro para la Igualdad (INAI)
- > **TIPO DE PROPUESTA:** Plan
- > **FASE DE LA PROPUESTA:** Elaboración
- > **ESTADO DE LA PROPUESTA DE GOBIERNO:** Activo
- > **ESTADO DEL PROCESO DE PARTICIPACION:** Activo
- > **PARTICIPACIÓN:**  
El documento preliminar del Plan Estratégico para la Igualdad entre Mujeres y Hombres de Navarra. estará en exposición pública para recibir [aportaciones y sugerencias](#), del 2 de noviembre al 2 de diciembre de 2021.  
De forma paralela, se realizará un contraste con los espacios institucionales con los que se trabaja en materia de igualdad y violencia contra las mujeres.  
El resultado de las aportaciones tanto de la ciudadanía como de los espacios institucionales se estudiará y se incorporará al Plan Estratégico para la Igualdad entre Mujeres y Hombres en Navarra (2022-2027).



ACCIONES	RESPONSABLE	VALIDADO	APORTACIONES Y PROPUESTAS DE ACCIONES
<b>10.1</b> ALINEAR LA RESPUESTA PÚBLICA ANTE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES CON LA NORMATIVA DE REFERENCIA	DO: Autonomía y Desarrollo de las Forales de Navarra		
<b>10.10</b> Mejorar la detección general de la violencia contra las mujeres.			
<b>10.1.1</b> Refuerzo y evaluación de los servicios para la detección y atención en centros de atención gratuita (Punto de Atención a las Mujeres, Unidades de Trabajo y Derivación social)	DO: Sanidad y Consumo DO: Protección Social DO: Autonomía y Desarrollo de las Forales de Navarra	<input type="checkbox"/> SI <input type="checkbox"/> NO	
<b>10.1.2</b> Evaluación y optimización de procedimientos e canales canales de detección y atención de violencia contra las mujeres en todos los niveles y atención de atención (atención primaria, atención y emergencia, atención especializada, atención hospitalaria, etc.), en los servicios sociosanitarios, incluyendo todos los programas desde los que se atiende a víctimas y en los centros de atención de Navarra	DO: Sanidad DO: Protección Social y Cooperación al Desarrollo de las Forales de Navarra	<input type="checkbox"/> SI <input type="checkbox"/> NO	
<b>10.1.3</b> Evaluación y optimización de protocolos de detección general de la violencia de género y violencia doméstica y de riesgo que incluye la detección de la violencia psicológica y la violencia económica	DO: Interior DO: Justicia DO: Sanidad	<input type="checkbox"/> SI <input type="checkbox"/> NO	
<b>10.1.4</b> Evaluación y optimización de los canales de atención, como: atención primaria y atención de los procedimientos biométricos e interconexión que permitan el flujo de información y colaboración entre los centros de atención contra las mujeres, incluyendo los que atienden las situaciones de urgencia	DO: Sanidad DO: Protección Social DO: Cooperación al Desarrollo de las Forales de Navarra DO: Autonomía y Desarrollo de las Forales de Navarra	<input type="checkbox"/> SI <input type="checkbox"/> NO	

## ZUZENKETAK

Hori horrela izanik ere, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak emakumeen hizkuntza eskubideen aitortzari lotutako ondorengo zuzenketak egitea proposatzen dugu:

		EKARPEN ZBK.: 1.	
		PROPOSAMENA	NEURRIA GEHITZEA
II. ARDATZA			
		6.3.12.ren ostean	
Testu berria:			
Nafarroako berezko hizkuntza den euskara ikasteko baliabide nahikorik ez duten emakumeei bideratutako azterketa egin, eta beharrezko neurri eta baliabideak eskaini.			

		EKARPEN ZBK.: 2.	
		PROPOSAMENA	NEURRIA OSATU
II. ARDATZA			
		8.3.4.	
Testu berria:			
Herritarrek administrazioarekin duten harremana modernizatzeko eta digitalizatzeko proposamenen aurrean emakumeek duten egoera aztertzea, adinaren, hezkuntza-mailaren, egoera sozioekonomikoaren <b>eta hizkuntzaren</b> aldagaiak kontuan hartuta.			

		EKARPEN ZBK.: 3.	
		PROPOSAMENA	NEURRIA OSATU
III. ARDATZA			
		9.2.3. neurriari gehitu	
Testu berria:			
Haur eta nerabeei bideratutako baliabide, informazio eta zerbitzu horietan guztietan euskarazko zerbitzua eskaini ahal izateko neurriak hartu.			

		EKARPEN ZBK.: 4.	
		PROPOSAMENA	NEURRIA OSATU
III. ARDATZA			
		9.3. neurrian ondokoa jaso	
Testu berria:			
Hezkuntza sistamarako sortzen diren baliabide eta informazio guztiak euskaraz ere sortuko direla bermatu.			

		<b>EKARPEN ZBK.: 5.</b>
		<b>PROPOSAMENA: NEURRIA OSATU</b>
<b>III. ARDATZA</b>		
		<b>9.6.2. neurriari gehitu</b>
<b>Testu berria:</b>	Informazioa jasotzeko tresna guztietan (eremu sozial zein osasun eremuan) emakumearen hizkuntza-eskubideak bermatzeko neurriak ezarri..	

		<b>EKARPEN ZBK.: 6.</b>
		<b>PROPOSAMENA: NEURRIA OSATU</b>
<b>III. ARDATZA</b>		
		<b>10.2.15. neurriari gehitu</b>
<b>Testu berria:</b>	Beharrezko baliabide, neurri eta laguntzak eskainiaz D ereduan ikasten badute, Nafarroako edozein eremutan D ereduan ikasten jarraituko duela bermatzeko.	

		<b>EKARPEN ZBK.: 7.</b>
		<b>PROPOSAMENA: NEURRIA ALDATU</b>
<b>IV. ARDATZA</b>		
		<b>12.4.4.</b>
<b>Testu berria:</b>	Kirola egiten duten emakumeei protagonismoa ematen dieten ekintzak antolatu eta egin, Nafarroako emakumeen aniztasuna islatzen duten emakumeen presentzia bermatuz (hizkuntza, arraza...)	

		<b>EKARPEN ZBK.: 8..</b>
		<b>PROPOSAMENA: NEURRIA OSATU</b>
<b>IV. ARDATZA</b>		
		<b>12.4.6.</b>
<b>Testu berria:</b>	Hedabideetan eta komunikabideetan babesa eta espazioa handitzeko, emakumeek parte hartzen duten kirol-modalitate eta -diziplinetan ekintzak antolatu, euskarazko komunikabideetan ere ekintzak egingo direla bermatuz.	

		<b>EKARPEN ZBK.: 9.</b>
		<b>PROPOSAMENA: NEURRIA GEHITU</b>
<b>IV. ARDATZA</b>		
		<b>13.1.6.ren ostean</b>
<b>Testu berria:</b>	Emakumeen osasunari lotutako neurri eta baliabide guztietan, euskarazko arreta, informazioa eta zerbitzua ere eskainiko dela bermatu; eta beharrezkoa bada, beste hizkuntzak ere kontuan hartu.	

